

FUNTSEZKO JARDUERAK: Kasu honetan, aurretik azaldu dudan bezala produkzioa ez zen arazo bat izango, beste enpresa bati eskatu behar diogulako produkzioaz arduratzea, guk ezin baitugu arduratu produktua sortzeaz. Beste alde batetik, arazoak konpontzerakoan, oso antolatuta edukiko genuke, bezeroekin arazoak baldin bazeuden, komunitate batb dugu jendeak arazoak jarri eta jende ezberdinak bere iritzia edo laguntzak txertatu ahal izango zituena, horrez gain gurekin kontaktatu ahal izango zen eta arazoak presentzialki edo bestela dei edo mezu bidez ere ahalko litzateke kontaktatu. Plataformako edo sareko jardueretan, gure web orria sartzen da, gure web orrian informazio osoa egongo litzateke txertatuta eta horrez gain guk geuk kontrolatu eta antolatzen dugula kontuan hartuta ez zen arazorik egongo.

